

! Atez ateko bilketa: zure zaborrak zure izena eramango du

! Feminismoa gizonen kontua ere bada

! Paperik gabeko liburuen garaia


ARGIA



ARGIA

2006ko martxoaren 8a | LXXX. urtea | 2.127 zenbakia | 3,70 euro

www.argia.com Euskal Herriko astekaria



“ETak ez du inoiz
desobedientzia zibilaren
estrategiarik garatu”

Fernando Olalde
Joxemi Zumalabe Fundazioa

! 5.301 kazetari Europako hizkuntza gubituetan ! **Hauteskundeak** Euskal Herri osoan lehenengo aldiz

«Nola irentsi egin ez duzunagatik atxilotu eta kondenatzea?»

Eskolako patioan inolako motiborik gabe zigortzen zintuztenean, asaldatu egiten zinen, minberatu, baina “irakasleak beti du arrazoia” esaten zizun amak. Bizitzaren patioan inolako motiborik gabe zigortzen zaituztenean, asaldatu egiten zara, minberatu, eta “botereak beti du arrazoia?” galdetu nahi zenioke amari.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Maddi Soroa

Etxe oneko semea omen zara...

Egia da etxean dirua bazegoela. Txiki-txikia nintzenetik kokortzen hasi nintzenera aldea nabaritu nuen, bistakoa zen familia hobera zihola. Txikitan kontrol gehiago zegoen maila guztietan, garaiak ere desberdinak ziren.

Desberdin, agian, Krafft-en sortzailleetako baten semea izateak egingo zintuen.

Ez bereziki. Baina une jakin batean, geroari so jarri eta zure buruari “nola integratuko diat hori nire pentsamenduan? Nire izaeran? Nire bizimoduan?” planteatzen diozunean, bistan da niri koadratzen ez zidan giro bat zela. Bizitzaren nondik norakoez jabetzen hastean konturatzen zara arazo bat izan daitekeela.

Kontzientzia politiko-soziala hartzearekin batera ohartu zinen hortaz?

Nik bereiziko nituzke elitismoaren ukazioaren kontzientzia eta kontzientzia politiko-soziala. Gurasoek euren munduan sartzera bultzatu eta atzera egiten nuenean, ez zen kontzientzia politiko-soziala. Gero, hazi ahala, zure pentsamendua garatzen duzu, harreman jakin batzuk hobesten, irakurketa zehatz batzuk lantzen... Hor garatzen duzu kontzientzia sozial bat, herri kontzientzia bat.

Salbuespen egoerak eta 70eko hamarkadako trapailak bete-bete harrapatu ninduen, eta Burgosko auzia Parisko maiatza baino klabeagoa izan zen niretzat. Beti eman izan dit inbidia nik baino 5 urte gehiago dauzkan belaunaldiak. Horiek bai harrapatu zutela olatua txanpa jotzeko moduan!

“Herentzia den metaketa sistema puskatu nahi izan nuen”

Txanpa jotzeko moduan ez zintuen harrapatuko, baina herentzia sistemari aurre egin behar zitzaiola erakutsi zizun behintzat.

Herentzia metaketa sistema baten parte da, eta belaunaldi ezberdinek geroz eta ondare gehiago pilatzen dute, sistema osoa medio ezberdinen jabetzan ardaiztuz. Zergatik onartu behar dugu hori? Nik metaketa sistema hori puskatu nahi izan nuen.

Nortasun agiria

1955eko irailaren 21ean jaio zen Donostian. Bertako Marianistetan ikasi ondoren ingeniartzari ekin bazion ere, ekonomian lizentziatu zen Sarrikoko unibertsitatean. Krafft enpresaren sortzailearen seme, aitarengandik jasotako herentzia Joxemi Zumalabe Fundazioan inbertitu zuen. Ez zuen asko usteko horrek Casa de Campoko akusatuen aulkian eseraraziko zuenik 18/98 makrosumarioaren baitan. Hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten, baina Donostiako Egia Kolektiboan jarraitzen du lanean, helegiteak eman ditzakeen fruituen zain.

A photograph of an elderly man with grey hair, smiling and looking off to the side. He is wearing a brown, green, and grey striped sweater. He is sitting on a wooden bench outdoors, with a blurred background of a field or park. The text 'Fernando Olalde' is overlaid in the top right corner in a brown, sans-serif font.

Fernando
Olalde



1994ko abenduan hil zen zuen aita eta...

“Nirekin hau bukatu da” esan nuen. 180 milioi pezetako herentzia jaso nuen, eta 15 milioiko pisua erosi ondoren, zer egin genezakeen aztertzen hasi ginen lagunekin. Zerbait independentea egin nahi genuen, bizitza propioa zuen zerbait, eta mugimendu sozialen zirrikitua aurkitu genuen. Azpiegiturarako, koordinaziorako eta komunikaziorako bitartekoak emateko modua eta beharra zegoela ikusi genuen. Giza mugimenduen espektro zabalera iritsi nahi genuen, eta horretarako gu ere anitzak izan behar ginen. Horrela sortu zen Joxemi Zumalabe fundazioa.

Ez zenuen usteko 2000ko urriaren 5eko goizaldean atxilo eramango zintuztenik.

Sekula, sekula. Nire bila etorri zirenean, eta fundazioaren kontuagatik zela ikusi nuenean, ezin nuen sinetsi, “ezinezkoa da, ez da posible” esaten nien. Erabateko sorpresa izan zen.

Anjela Murillo

“Deklaratu nuenean, Anjela Murillok interesa agertzen zuen sentsazioa nuen, ulertzen ninduen sentsazioa. Besteekin ere berdin, batzuekin gehiago besteekin gutxiago, baina zerbait komunikatzen ari gintzaizkiola sinetsita nengoen. Beste behin ere nire inozokeria izan zen, zeren edo ez zuen ulertzen edo ez zuen ulertu nahi izan”.

Oso gaizki egon nintzen. Bakardadea, inpotentzia, tabako premia gorria... Ia-ia zoratu. Ez nekien denbora nola bete, ezin nion buru-janari utzi. Deliturik egin ez duzunez oso modu injustuan sartu zaituztela iruditzen zaizu, jasan ezina da. Nola onartuko duzu egin ez duzunagatik atxilotu eta kondenatzea?

Dena gaizkiulertu bat dela eta segidan irtengo zaretela pentsatuz, akaso?

Orain oso gutxira arte uste izan dut libratzeko aukera izango genuela. Jakina, beldurra hor dago, boterea boterea delako. Arrazoia eta egia gailenduko zirela sinetsi genuenean, ordea, gizajo samarrak izan ginen. Euskal Herrian denek dakite Joxemi Zumalabe fundazioa ez dela inoiz izan ASKren ondorengoa, ETAK ez duela inoiz desobedientzia zibilaren estrategiarik garatu, eta horrenbestez, fundazioak ez duela inoiz estrategia horren sozializazioaren ardura hartu.

Atxiloketatik epaiketara bitarteko urteak ez ziren samurrak izango.



Ohitzen joaten zara. Defentsa gorpuztu ahala, irabazteko arma guztiak daukazula sinesten duzu. Abokatuak izugarritzko lan ona egiten ikusten dituzu, konfiantza hartzen joaten zara. Era berean, fundazioak lanean jarraitzen du, 18/98+ plataforman eragin handia dauka. Aspaldian ikusi gabeko fenomeno soziala izan da plataformarena. Izugarria da sentsibilitate desberdineko jendea bildu eta kalitate oneko lana egitea. Ezinbestekoa, herri honentzat.

Gaur egun, sentsibilitate desberdinak lotzea bezain zaila da jendea mobilizatzea.

Mobilizatu duguna baino jende gehiago mobilizatzea zaila da. Egiten duzuna egiten duzula, ez zara sekula futboleko audientzietara iritsiko. Gizarte osoa sei alderdi politikotan banatzen dela dioten eskema gezurra da. Gizartea ezin da hamar talde sektorialetan sailkatu. Jende asko analisi sozial horietatik kanpo dago. Horiengana ez zara iristen. Horiengana iristeko lurrikara bat behar du. Zer esan nahi du horrek? Sekulako jende pila mobilizatu

Justiziarekiko sinesmena.

“Hori hirutasunean sinestea bezalakoa da. Justiziaren ideia demokraziaren ideia bezalakoa da. Oso ideia politikak dira, beste gauza bat da nola gauzatzen diren erakundeetan. Justizia horren mugak zure justiziaren ideiarekiko alderatzen badituzu, muga erraldoiak daude”.

“Sekulako jende pila mobilizatu dugun arren, askoz jende gehiago dago 18/98 zer den ez dakiena”

dugun arren, askoz jende gehiago dagoela 18/98 zer den ez dakiena.

Zer alternatiba dauka horrek?

Gertatzen ari dena oso larria da. Oso-oso larria. Ez dakidana da ez ote den larriagoa izango gertatuko dena. Estatuaren eraso aspaldi ezagutu dugun bortitzena da, eta gizartearen zatiketa eta polarizazioa izugarria. Oso pesimista naiz, xeha-xehatuta nauka egoerak, eta ez daukat alternatibarik.

Badu zerikusirik Eusko Jaurlaritzak makrosumarioarekiko erakutsi duen jarrerak?

Keinu interesgarri batzuk izan ditu, baina ez aski. Dena den, nolako erantzuna beharko luke lehendakaria auzipetua dagoenean, “dena ETA da” dioten teoria baliozkotzat jotzen dutenean, eta tortura zantzuak geroz eta nabarmenagoak direnean?

Barajasko atentatuak ez zuen gehiegi lagunduko...

Epaiketaren geroarekiko, baina batez ere, Euskal Herriaren geroarekiko perspektiba aldatu zidan. Lizarra-Garaziko su-etenaren hausturak izugarri kolpatu ninduen, sekulako akatsa iruditu zitzaidan. Oraingoan, “ez dut gehiago politikaz ezer jakin nahi, 18/98 zer den ez dakitenean portzentajera konbertituko naiz” pentsatu nuen. Nora goaz? Garbi daukat batzuek determinazio gehiago erakutsi behar zutela eta besteek gerri politiko gehiago, eta bestetuek konturatu behar dute borroka armatuarekin ez goazela inora.

Su-etenak indarrean jarraitu balu, sententzia bestelakoa izango zela uste duzu?

Dudarik gabe. Joan den abendu arteko balizko su-eten luzea egon balitz aldaketen seinale garbia izango zen, eta aldaketa horiek eragina izango zuten sententzian.

Zer sentitu zenuen, bigarren aldiz atxilotu, lau egun kartzelan pasa, epailearen aurretik sententzia notifikatzeko igaro, eta fidantzepean aske geratzean?

Sekulako konfusioa. Alde batetik, “hil nahi dut! Nora noa? Zergatik ematen didate beste bizitza bat katuei bezala? Zer opari da hau?”. Bestetik pozaldi amaigabea. Sei ordu daramatzazu kalabozuan, epailearen aurretik pasa zara, eta bermepean aterako zarela esaten dizutenean, bat-batean oporretan zaudela iruditzen zaizu. Baina hain dira une nahasiak zure poza transmititzeak mina ematen dizula. Ez



AZKEN HITZA

Ingeniaritza

“Ingeniaritzari ekin nion, gustu estetikoagatik soilik. Fisika eta Matematikak pasioa pizten didate. Lehen eta bigarren mailak gainditu nituen baina ohartu nintzen estetikoegia zela dena, ez zeukala nire bizitza eta giroarekin zerikusirik. Eremu elektromagnetikoez liluratzen ninduten baina nire errealtate sozialera eramanda ez zuten deus ekartzen. Horregatik lizentziatu nintzen ekonomian”.

nekien barruan geratzen ziren lagunei nola begiratu, ez nekien zer esan.

Hemendik aurrera zer datorren bazeneki, sikiera. Helegitea ahal bezain ongi lantzen ahaleginduko gara. Behin helegitea aurkeztuta, auzia etorriko da, eta gero beste sententzia bat. Ez naiz baikorra egoera politiko sozialak ez duelako hala egoteko biderik ematen. Nire baikortasun bakarra arrazoa izatean datza. Horretan oinarritzen naiz. Arrazoa izateak beti uzten du esperantzaren atea zabalik.

Bitartean hamar urteko kondanaren Damoclesen ezpata gainean duzula bizi behar. Horrek bizitzaren kudeaketa ezberdina dakar. Lanean afera berrietan ez sartzen saiatzen naiz. Alderantziz, karpetak ixten, eta gaiak ahal bezain prestatuak uzten. Etxekoe-kin, goxoago, leunago egoteko joera dut, ez

dut liskarrik nahi. Bestalde, ezin dut planik egin, eta neure burua kondena bati aurre egiteko gaitu behar dut. Ez da samurra. Eguna hasperenka pasatzen dudan etengabeko sentsazio goibela da.

Badakizu nork diseinatu zuen amesgaizto hau?

Dena Espainiako inteligentzia zerbitzuetatik hasten da. Ez dakit zein den ideologoa, zer polizia den, baina PSOE boterean zegoen. Orduan gorpuztu zen ETArekin bukatzeko ETAn antolatua dagoena baino jende askoz gehiago kolpatu behar dela dioen teoria. Hori hala, errepresioa geroz eta talde zabalagoetara hedatzea erabaki zuten, ETARI arnasa ematen diotelakoan, ETAREN oinarri ekonomiko, komunikatibo, eta ideologikoa direlakoan.

Zer esan nahi duzu, ez daukala zerikusirik agintean PP edo PSOE egotearekin?

Ez da gauza bera agintean PP edo PSOE egotea, baina hau guztia 90eko hamarkada hasierako kontua da. PSOEek urte asko zeramatzen gobernuan, inteligentzia zerbitzuak kontrolatzeko beste. Horregatik pasa ziren teoriatik praktikara, polizia informeak eginez, gertaerak manipulatu bere teoria horiek frogatzeko eta jende multzo zabala inputatzeko. Dena egun batez auzitegi baten aurrean oinarritzko froga gisan aurkeztu moduan. Hori gutxi balitz, bete behar zuen papera betetzen zuen epaile batekin egin zuten topo. Garzonen rola ezinbestekoa da pelikula honetan. Ez dakit Garzonek erabiltzen duen polizia, poliziak erabiltzen duen Garzon, edo Gobernuak erabiltzen dituen Garzon eta polizia. Ez dakit nork erabiltzen duen nor, baina interesen metaketak soilik ahalbidetzen du estrategia muturreraino eramatea.

Oker gaude, beraz, martxoaren 9ko hauteskundeak begira gaudenak.

Gobernutik gauza batzuk aldatu daitezke. Justizia eta interes politikoaren arteko harremana badago, ez dakit zer forma ematen zaien, baina badago. Horrek ez du esan nahi Gobernuak gauzak aldatu nahi dituenik. Hauteskundeak ere, berez, ez dute ezer aldatuko, une honetan irudikatzea zaila den distentsio prozesu batek soilik alda baititzake gauzak.

Kantuak ere halaxe dio: “Hau dena aldatu nahi nuke!”.

Uneotan ez dut irteerarik ikusten. Jarrerak oso finkatuta daude, erro-errotuak. Askok kezkatzen nau immobilismo honek. Uste dut politikariak arduragabekeria handiz jokatzeko ari direla. Sufrimenduaren mapa etengabe ari da hedatzen eta gizarteak aldaketa nahi du. Kontua nondik nora joango den?... Ez daukat batere garbi. ■

“Gertatzen ari dena oso larria da.

Ez dakidana da ez ote den

larriagoa izango gertatuko dena”

¿Cómo digerir que te encarcelen y te condenen por algo que no has hecho?

Cuando en el patio del colegio te castigaban sin ningún motivo te rebelabas, te dolías, pero la ama te decía que el profesor “siempre tiene razón”. Cuando en el patio de la vida te castigan sin ningún motivo te rebelas, te dueles y te gustaría preguntarle a tu madre: “¿el poder siempre tiene razón?”

Sustrai Colina

Fotos: Maddi Soroa

Dicen que eres de buena familia...

Es cierto que en casa había dinero. Conforme fui creciendo, la situación económica familiar fue mejorando. De pequeño había más control a todos los niveles, los tiempos también eran diferentes.

Tal vez te haría diferente el ser hijo de uno de los fundadores de Krafft.

No especialmente. Pero en un momento dado te pones a mirar adelante. Y al preguntarme cómo integrar lo que me esperaba en mi forma de pensar, en mi forma de ser, en mi tipo de vida, había algo en aquel ambiente que no encajaba conmigo.

Cuando empiezas a hacerte cargo de la dirección que va a tomar tu vida te das cuenta de que puede ser un problema.

¿Te diste cuenta de eso al despertar en ti la conciencia político-social?

Yo distinguiría la conciencia de la negación del elitismo y la conciencia político-social. Cuando mis padres me empujaban a entrar en su mundo y yo me echaba para atrás no era todavía conciencia político-social. Luego, conforme vas creciendo desarrollas tu propio pensamiento, primas ciertas relaciones, trabajas determinados tipos de lectura... Ahí desarrollas una conciencia social, una conciencia de pueblo.

La situación de aquel momento te ayudaría a concienciarte.

El estado de excepción y los acontecimientos de la década de los sesenta me afectaron de lleno, y el juicio de Burgos fue para mí más significativo que el Mayo de París. Siempre me ha dado envidia la generación que tiene cinco años más que yo; a ellos sí que les pilló la ola para hacer una buena txampa.

A tí tal vez no te pilló para hacer una buena txampa, pero sí que te enseñó que había que oponerse al sistema establecido de transmisión de las herencias.

La transmisión de las herencias es parte de un sistema en el que las nuevas generaciones van acumulando cada vez más bienes, fundándose todo el sistema en la propiedad particular. ¿Por qué tenemos que aceptar eso? Yo quise romper ese sistema acumulativo.

En diciembre de 1994 murió tu padre y...

“Conmigo esto se ha terminado”, decidí. Recibí de herencia 180 millones de pesetas y, tras comprarme un piso de 15 millones, empecé a analizar con unos amigos qué podíamos hacer. Queríamos hacer algo independiente, algo con vida propia, y encontramos un área de trabajo en los movimientos sociales. Vimos que había necesidades y que podíamos ofrecer infraestructuras y recursos para la coordinación y la comunicación. Queríamos abarcar el amplio espectro de

los movimientos sociales y, para ello, nosotros también teníamos que ser plurales. Así nació la Fundación Joxemi Zumalabe.

No pensarías que la madrugada del 5 de Octubre del 2000 te llevarían detenido.

Jamás, jamás. Cuando vinieron a buscarme y ví que era por la Fundación no me lo podía creer: “No puede ser, es imposible”, les decía. Fue una sorpresa absoluta.

¿Qué se te pasó por la cabeza en la soledad del calabozo?

Estuve muy mal: Soledad, impotencia, necesidad imperiosa de tabaco... Casi me volví loco. No sabía cómo llenar el tiempo, no podía dejar de comerme el tarro. Cuando no has cometido un delito sientes que te han detenido de una manera muy injusta, es insoportable. ¿Cómo vas a aceptar que te detengan y te condenen por algo que no has hecho?

¿Pensando acaso que ha sido un malentendido y que vas a salir en seguida?

Hasta hace muy poco he pensado que teníamos posibilidad de acabar absueltos. Por supuesto, el miedo siempre ha estado ahí, porque el poder es el poder. Pero al suponer que la razón y la verdad se impondrían fuimos bastante ingenuos. Todo el mundo sabe en Euskal Herria que la Fundación J.Z. nunca ha sido sucesora de KAS, que ETA nunca ha desarrollado la estrategia de la desobediencia civil y, por lo tanto, que la Fundación nunca asumió la responsabilidad de la socialización de dicha estrategia.

Los años entre las detenciones y el juicio no habrán sido fáciles.

Te vas acostumbrando. Conforme la defensa va tomando cuerpo crees que tienes todas las armas para ganar. Ves a los abogados haciendo un trabajo extraordinario, vas tomando confianza. Al mismo tiempo, la Fundación continúa trabajando y tiene gran influencia en la

plataforma 18/98+. Esta plataforma ha sido un fenómeno social que no se veía desde hace mucho; es impresionante reunir a gente de sensibilidades tan diferentes y hacer un trabajo de semejante calidad. Algo imprescindible para este pueblo.

Hoy en día, es tan difícil reunir sensibilidades diferentes como movilizar a la gente.

Es difícil movilizar a más gente de la que hemos movilizado. Hagas lo que hagas, nunca vas a llegar a las audiencias del fútbol. El esquema que dice que toda la sociedad se reparte en seis partidos políticos es falso. No se puede clasificar a esta sociedad en diez grupos sectoriales. Hay mucha gente que escapa a ese análisis social. Muchos a los que no llegas. Para llegar a todos sería necesario un terremoto. ¿Qué quiero decir con esto? Que, a pesar de que hemos movilizado a muchísima gente, hay todavía mucho más gente que ni siquiera sabe qué es el 18/98.

¿Qué alternativa tiene eso?

Lo que está pasando es muy grave, muy muy grave. No sé si no será aún más grave lo que está por pasar. El ataque del Estado es el más feroz que hemos conocido desde hace mucho tiempo y la división y la polarización de la sociedad son tremendas. Soy muy pesimista, la situación me tiene hecho polvo, y no le encuentro alternativa.

¿Tiene algo que ver la postura que ha escenificado el Gobierno Vasco con respecto al macrosumario?

El Gobierno Vasco ha tenido algunos gestos interesantes, pero no suficientes. De todas maneras, ¿qué tamaño de respuesta haría falta cuando el mismo lehendakari está procesado, cuando se acepta como válida la teoría “todo es ETA”, y cuando los indicios de tortura son cada vez más incuestionables?

El atentado de Barajas no ayudó demasiado.

Me cambió la perspectiva sobre el futuro del juicio, pero más aún sobre el futuro de Euskal Herria. La ruptura de la tregua de Lizarra-Garazi supuso para mí un golpe impresionante. Me pareció un error tremendo. En la última pensé: “Ya no quiero saber nada de política. Me voy a sumar al porcentaje de los que no saben qué es el 18/98”. ¿A dónde vamos? Tengo claro que algunos tenían que haber demostrado más determinación y otros más cintura política. Y algunos otros tienen que darse cuenta de que con la lucha armada no vamos a ninguna parte.

¿Crees que si la tregua hubiera seguido vigente la sentencia habría sido distinta?

Sin duda. Si la tregua hubiera continuado hasta diciembre pasado habría sido clara señal de que algo estaba cambiando y esos cambios habrían tenido influencia en la sentencia.

¿Qué sentiste cuando te detuvieron por segunda vez, pasaste cuatro días en la cárcel, cuando compareciste ante el juez para que te notificara la sentencia y quedaste libre bajo fianza?

Una tremenda confusión. Por un lado: “¡Quiero morirme! ¿A dónde voy? ¿Por qué me dan otra vida como a los gatos? ¿Qué es este regalo?” Por otro lado, una gran alegría. Llevas seis horas en el calabozo, has comparecido ante el juez y cuando te dicen que vas a salir bajo fianza, de repente, te parece que estás de vacaciones. Pero son unos momentos tan confusos que manifestar alegría te hace daño. No sabía cómo mirar a los compañeros que se quedaban dentro, no sabía qué decir.

Si por lo menos supieras lo que viene de aquí en adelante.

Intentaremos trabajar el recurso lo mejor posible. Una vez presentado éste, vendrá el juicio y después otra sentencia. No soy optimista porque la situación político-social no da pie para serlo. Mi

único optimismo estriba en que tengo la razón. En eso me baso. Tener la razón siempre deja una puerta abierta a la esperanza.

Mientras tanto tienes que vivir con la espada de Damocles de los diez años de condena.

Eso conlleva un planteamiento diferente de la vida. En el trabajo intentas no asumir asuntos nuevos. Al contrario, te esfuerzas por cerrar carpetas y dejar los temas lo mejor preparados posible. Con los de casa tengo la tendencia de ser más cariñoso, más suave; no quiero tener líos. Por otro lado, no puedo hacer planes y tengo que prepararme para hacer frente a una condena. No es fácil. Tengo la triste sensación de pasar el día lamentándome.

¿Sabes quién diseñó esta pesadilla?

Todo empieza por los servicios de inteligencia españoles. No sé quién es el ideólogo, qué policía fue, pero en el poder estaba el PSOE. Fue entonces cuando se gestó la teoría de que para terminar con ETA había que golpear a mucha más gente que la que estaba organizada en ETA. Siendo eso así, decidieron ampliar la represión cada vez a círculos más amplios, en la creencia de que estos dan aliento a ETA y son su base económica, comunicativa e ideológica.

¿Qué quieres decir, que no importa si en el poder está el PP o el PSOE?

No es lo mismo quién esté en el poder, pero todo esto es un asunto que viene de los primeros años de la década de los noventa. El PSOE llevaba muchos años gobernando y por tanto controlaba los servicios de inteligencia. Por eso pasaron de la teoría a la práctica, haciendo informes policiales, manipulando los sucesos para probar sus teorías y para imputar a un colectivo muy amplio. Todo ello, de forma que un día pudiera presentarse ante un tribunal como prueba de cargo. Por si eso fuera poco, toparon con un juez que se avenía a cumplir

el papel asignado. El rol de Garzón es imprescindible en esta película. No sé si Garzón utiliza a la policía, si la policía utiliza a Garzón o si el gobierno se sirve de ambos. No sé quién utiliza a quién, pero sólo la suma de intereses posibilita llevar la estrategia hasta el extremo.

Por lo tanto estamos equivocados los que nos quedamos mirando a las elecciones del día 9 de marzo.

Desde el gobierno se pueden cambiar algunas cosas. Entre la justicia y el interés político existe una relación. No sé exactamente cómo se articula, pero existe. Eso no quiere decir que el gobierno quiera

cambiar las cosas. Las elecciones, de por sí, tampoco van a cambiar nada; porque lo único que puede cambiar las cosas es un proceso de distensión que en estos momentos es difícil de imaginar.

La canción dice así: “Quisiera cambiar todo esto”

En estos momentos no veo salida. Las posturas están muy definidas, enrocadas. Este inmovilismo me preocupa mucho. Pienso que los políticos están actuando con mucha irresponsabilidad. El mapa del sufrimiento está creciendo sin parar, y la sociedad quiere un cambio. ¿Hacia dónde van a evolucionar las cosas? No lo tengo nada de claro.

Carnet de identidad:

Nació en Donostia el 21 de Septiembre de 1955. Aunque después de estudiar en marianistas empezó a estudiar ingeniería, se licenció en económicas en la Universidad de Sarriko. Hijo del fundador de Krafft, invirtió la herencia recibida de su padre en la Fundación Joxemi Zumalabe. No pensó que este hecho fuera a sentarle en el banquillo de los acusados dentro del macrosumario 18/98. Le condenaron a una pena de diez años de cárcel, pero sigue trabajando en el Colectivo Egia de Donostia a la espera del desenlace del recurso presentado.

Ángela Murillo:

“Cuando declaré, tuve la sensación de que Ángela Murillo mostraba interés, de que me entendía. También con los demás, con unos más y con otros menos, pero estaba convencido de que le estábamos comunicando algo. Otra vez mi ingenuidad, porque o no entendía o no quería entender.

Fé en la justicia:

“Eso es como creer en la Trinidad. La idea de la justicia es como la idea de la democracia. Son unas ideas muy bonitas; otra cosa es como se materializan en las instituciones. Si comparas la práctica real de la justicia con tu idea de lo que debería ser la misma, las distancias son insalvables.

LA ÚLTIMA PALABRA.

Ingeniería

“Me metí en ingeniería exclusivamente por el gusto estético. La física y las matemáticas me apasionan. Superé los dos primeros cursos pero me dí cuenta que aquello era demasiado estético, que no tenía nada que ver ni con mi vida ni con mi entorno. Los campos electromagnéticos me seducían pero no me aportaban nada llevados a mi realidad social. Por eso me licencié en economía.”